



Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan

EAE 2014

Emitzen laburpena



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

Aurkibidea



1. Kultura-gastua 2014an	_03
2. 2008-2014 bilakaera	_09
3. Kultura gastu publiko osoaren aldean	_14
4. Udalen transferentzia bidezko diru-sarreraren bilakaera	_17
5. Ekintza-eremu nagusiak	_20
6. Kultura-enpleguaren bilakaera	_25





1. Kultura-gastua 2014an

393,5 milioi euro jaso ditu kulturak EAEko herri-administrazioetatik +

Igoera arina 2012arekiko +

Gastu arruntak eutsi egin dio; kapital-gastua, berriz, zeharo murriztu da +

Gastu kontsolidatuaren bilakaera, erakunde-motaren arabera (milioika eurotan). 2010-2014. +

EAEko herri-administrazioek egindako kultura-gastuaren banaketa, Sailkapen ekonomikoaren eta administrazio-mailaren arabera (euroak eta ehunekoa). 2010-2014. +



393,5 milioi euro jaso ditu kulturak EAEko herri administrazioetatik

EAEko kultura-gastu kontsolidatua 393,5 milioi eurokoa izan zen 2014an. Hamar eurotik ia 6 (227,2 milioi) udalek jarri zituzten, gainerakoa Eusko jaurlaritzak eta foru-aldundiek erdibana (84,6 eta 81,6 milioi euro hurrenez hurren).



Igoera arina 2012arekiko

2010arekiko % 17,9 jaitsi da EAEko kultura-gastu kontsolidatua (85,7 milioi euro), baina 2012arekiko gora egin du zertxobait (% 1,1), Eusko Jaurlaritzaren gastuaren ohiz kanpoko igoeraren ondorioz^{1.1}.

¹ Praileaizko koba Ondasun Kultural izendatu izanaren ondorioz, Euskadiko Justizia Epaitegi Nagusiaren epaiak xedatu zuenez, harrobiaren jabeari kalte-ordaina ordaindu behar izan zaio, izango ez dituen irabazien ordainetan.




Gastu arruntak eutsi egin dio; kapital-gastua, berriz, zeharo murriztu da

10 eurotik, ia 9 gastu arrunterako dira. Kapital gastuek % 6,3 egin dute behera 2010az geroztik, eta administrazio maila guztietan gertatu da. Finantza-aktiboak eta finantza-pasiboak, gastu osoarekiko oso kopuru txikia osatzen badute ere, forualdundietan ageri dira batez ere.



Gastu kontsolidatuaren bilakaera, erakunde-motaren arabera (milioika eurotan). 2010-2014.



EAEko herri-administrazioek egindako kultura-gastuaren banaketa, Saillkapen ekonomikoaren eta administrazio-mailaren arabera (euroak eta ehunekoa). 2010-2014.

Saillkapen ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritzza		Foru Aldundiak		Udalak		GUZTIRA	
Gastu arrunta	2010	55.840.285 €	%15,7	62.626.122 €	%17,6	237.098.159 €	%66,7	355.564.566€	%100,0
	2012	57.335.603 €	%17,1	63.604.917 €	%18,9	214.945.056 €	%64,0	335.885.576€	%100,0
	2014	69.917.139 €	%20,0	65.569.014 €	%18,8	213.272.749€	%61,2	348.758.902€	%100,0
Kapital-gastua	2010	20.210.732 €	%17,3	30.508.016 €	%26,1	66.212.344 €	%56,6	116.931.092 €	%100,0
	2012	18.908.807 €	%36,8	22.732.540 €	%44,2	9.773.487 €	%19,0	51.414.834 €	%100,0
	2014	14.666.760 €	%33,9	15.060.313 €	%34,8	13.504.855 €	%31,2	43.231.929 €	%100,0
Finantza-aktiboak eta finantza-pasiboak	2010	3.830.966 €	%58,0	2.644.444 €	%40,0	129.672 €	%2,0	6.605.082 €	%100,0
	2012	839.651 €	%42,2	1.012.176 €	%50,9	135.837 €	%6,8	1.987.664 €	%100,0
	2014	34.588 €	%2,3	1.001.475 €	%66,4	471.131 €	%31,3	1.507.194 €	%100,0
GUZTIRA	2010	79.881.983 €	%16,7	95.778.582 €	%20,0	303.440.175 €	%63,3	479.100.740 €	%100,0
	2012	77.084.061 €	%19,8	87.349.633 €	%22,4	224.854.38 €	%57,8	389.288.074 €	%100,0
	2014	84.618.487 €	%21,5	81.630.802 €	%20,7	227.248.735 €	%57,8	393.498.024€	%100,0





2. 2008-2014 bilakaera

 % 14 murriztu da gastu likidatua 2008az geroztik +

Jaitsierak udalei eta foru-aldundiei eragin die +

Hobera egin du zertxobait egoerak 2012arekiko +

Kultura-gastu likidatua, erakunde-motaren arabera (euroak). 2008-2014. +



% 14 murriztu da gastu likidatua 2008az geroztik

EAEko administrazioek 524,7 miloi euro bideratu dituzte kultura-politiketara 2014an, 2008an baino 88,2 milioi euro gutxiago. Beraz, % 14,4 egin du behera kulturen egindako gastu likidatuak.



Jaitsierak udalei eta foru-aldundiei eragin die

Udalen eta foru-aldundien aurrekontuen murrizketak azaltzen du joera orokorra, administrazio horiek 2008an baino laurden bat gutxiago bideratzen baitute kulturara. 2014an 2008an baino 27,9 milioi euro gutxiago kudeatzen dituzte forualdundiek (-% 26,7).

Udalek izan dute murrizketarik handiena, % 29,3 gutxiago (88,5 milioi euro gutxiago). Eusko Jaurlaritzak eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek izandako igoerak (% 19,6 eta % 10,8, hurrenez hurren) ez dira nahikoak izan foru-aldundien eta udalen murrizketa berdintzeko. 2014an, oraindik urruti dago kultura 2008ko aurrekontu publikoetan zuen egoerara itzultzeko.



Hobera egin du zertxobait egoerak 2012arekiko


2012tik hona nolabaiteko hobekuntza hauteman da, murrizketak gero eta txikiagoak baitira.

Foru-aldundiek murrizketa horri % 2,8an eustea lortu dute; berdintsu jarraitu dute udalen aurrekontuek 2014an, gastuaren bolumenak % 1,4 behera eginik. Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan izandako aldaketa, neurri batean behintzat, erroldan izandako aldaketen ondorioa da. Hala ere, % 6,3 inguru urritu dira horien aurrekontuak 2012arekiko.

Eusko Jaurlaritzaren kasua ohiz kanpoko da lehen esandako kalte-ordaina dela eta, zuzenean eragiten baitu horrek aurrekontuak 2014an izandako gorakadan (2012koa bainoa % 18,1 handiagoa).



Kultura-gastu likidatua, erakunde-motaren arabera (euroak). 2008-2014.





3. Kultura gastu-publiko osoaren ondoan

Indarra galdu du kulturak gastu publiko osoarekiko +

Kultura-ahaleginaren bilakaera, erakunde-motaren arabera (milioika euro).
2008-2014. +




Indarra galdu du kulturak gastu publiko osoarekiko

Udalek egiten dute kulturaren aldeko ahaleginik handiena (kultura-aurrekontua eta aurrekontu osoaren arteko ratioa). Dena dela, atzeraldia etenik gabea izan da azken urteotan, eta 2014ko balioa izan da azterketa hasi zenetik izan den txikiena (7,6). 2008az geroztik udalen kultura-gastua % 29,3 murriztu da, eta haien aurrekontu osoa, berriz, % 14,0. Alegia, kultura-gastua eta guztizko gastua ez dira proportzio berean murriztu. Aztertu den azken aldietan (2012-2014), udalen kultura-gastuak % 1,4 egin du behera, haien aurrekontu osoa berriz, % 2,2 hazi da.

Foru-aldundiei dagokienez, 2014an kultura-ahaleginaren ratioa hazi egin da eta % 2,9raino iritsi, aurrekontu osoa kultura aurrekontua baino gehiago murriztu da eta. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren ratioa % 0,8 hazi da, aurrekontu osoa murrizteaz gain, kultura-aurrekontua hazi egin da eta.



Kultura-ahaleginaren bilakaera, erakunde-motaren arabera (milioika euro). 2008-2014.





4. Udalen transferentzia bidezko diru-sarrerren bilakaera

Behera egin du udalen kultura-gastuetan transferentzia bidezko diru-sarrerren pisuak +

Transferentzia bidezko diru-sarrerren pisuaren bilakaera udalek egindako kultura-gastu osoarekiko (euroak, ehunekoa). 2010-2014. +



Behera egin du udalen kultura-gastuetan transferentzia bidezko diru-sarrerren pisuak

2014an, udalek kultura egin duten gastuaren % 5,4 haien gainetiko mailako administrazioek egin zizkieten transferentzien bidez estali zen². Tamainaren arabera: oro har, zenbat eta txikiagoa izan udala, orduan eta pisu handiagoa transferentziek.

2010arekiko, joera beheranzkoa izan da kasu guztietan, bereziki 5.000 biztanletik azpiko udalerrien kasuan (% 45,9 gutxiago) eta hiriburuen kasuan (% 40,2 gutxiago). Kulturara bideratutako transferentzien kasuan joera murriztea bada ere, ez da gauza bera gertatzen transferentzien guztizkoarekin. Eustaten Sektore Publikoaren Aurrekontu³ estatistikaren arabera, epealdi horretan, % 8,4ko igoera izan zen transferentzien guztizkoetan.

Aipatzeko modukoa da kultura-gastuan izandako murrizketarik handienak 2010 eta 2012 bitartean gertatu zirela; haatik, 2012 eta 2014 bitartean bereziki jasotako transferentziak murriztu ziren, 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrien kasuan izan ezik. Izan ere, 2012-2014an kultura-gastuak gora egin zuen zertxobait, udalerrri txikienetan izan ezik.

² Haien mendeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioak barne hartuta.

³ http://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3436_pspmun01.px/#axzz4Ky0R6emC



Transferentzia bidezko diru-sarreraren pisuaren bilakaera udalek egindako kultura-gastu osoarekiko (euroak, ehunekoa). 2010-2014.

Udalerriaren tamaina	Urtea	Kultura-gastua	Transferentzia bidezko diru-sarrerak		Transferentzi en pisua gastu osoarekiko
			Aldea (%)	Aldea (%)	
< 5.000 biztanle	2010	36.833.349 €		3.010.300 €	%8,2
	2012	30.127.938 €	▼ %18,2	3.013.484 €	▲ %0,1
	2014	24.787.618 €	▼ %17,7	1.628.746 €	▼ %46,0
5.000 – 20.000 biztanle	2010	75.091.340 €		7.305.289 €	%9,7
	2012	57.772.046 €	▼ %23,1	5.377.486 €	▼ %26,4
	2014	58.839.162 €	▲ %1,8	4.902.643 €	▼ %8,8
> 20.000 biztanle	2010	73.353.192 €		5.053.833 €	%6,9
	2012	60.811.431 €	▼ %17,1	4.682.673 €	▼ %7,3
	2014	61.946.529 €	▲ %1,9	3.924.382 €	▼ %16,2
Hiriburuak	2010	137.808.527 €		4.276.810 €	%3,1
	2012	93.648.820 €	▼ %32,0	4.432.214 €	▲ %3,6
	2014	94.689.506 €	▲ %1,1	2.558.308 €	▼ %42,3
Udalak, guztira	2010	323.086.407 €		19.646.232 €	%6,1
	2012	242.360.236 €	▼ %25,0	17.505.856 €	▼ %10,9
	2014	240.262.815 €	▼ %0,9	13.014.080 €	▼ %25,7





5. Jarduera-eremu nagusiak

Ez da aparteko aldaketarik izan kultura-gastuaren norakoan +

Kultura-ekintza eta musika dira nagusi kultura-gastuan +

EAEko herri-administrazioek egindako kultura-gastua, kultura-esparruka (%). 2010-2014. +

EAEko herri-administrazioek egindako kultura-gastua, kultura-esparruko (euroak; ehunekoa). 2010-2014. +



Ez da aparteko alaketarik izan kultura-gastuaren norakoan

Urteek aurrera eginagatik, berdintsu banatzen da gastua: arteek eta industriek gastu osoaren 10 eurotik 5-6 inguru jasotzen dituzte (% 55,2, hain zuzen), ondareak 10 eurotik 3 jasotzen ditu (% 30,6) eta herri-festek eta herri-kulturak % 7,7. Azkenik, zuzendaritza eta zerbitzu orokorren atalean batzen diren zeharkako kudeaketa-gastuetara guztizko gastuaren % 6,5 bideratzen da.



Kultura-ekintza eta musika dira nagusi kultura-gastuan


Xehetasun gehiagoz aztertuta, kultura-ekintza eta musika dira nagusi kulturagastuan, esandako hurrenkeran horretantxe; kultura gastatzen diren 10 eurotik 4 horietara doaz, izan ere. Aurreko urteetan, musika kultura-ekintzaren aurretik zihoan; kultura-ekintza esan zaion zeharkako atalean agertutako bi proiektu bereziri zor zaie aldaketa: Tabakalera eta DSS2016 Europako kultura-hiriburutza. Beste alorren aldean handia izaten jarraituagatik ere, musikan gastatutako kopurua 2012ko 93,2 milioitik 2014ko 77,7 milioira jaitsi da.

Horien atzetik ondareari lotutako hiru atal datoz rankinean: museoak (% 10,9), liburutegiak (% 8,9), ondarea eta arkeologia (% 8,4) eta antzerkia eta dantza (% 8,3). Ehuneko 6 eta 8 bitartean dira herri-festak eta herri-kultura (% 7,7) eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (% 6,5). Gastu kontsolidatuaren % 4,7 zinemara eta ikus-entzunezkora bideratu da. Balio horien oso azpitik datoz artxibategiak (% 3,5), ikusizkoa arteak (% 1,6), literatura eta edizioa (% 0,6) eta bertsolaritza (% 0,2).


Komunikabideetan egin dako gastuari dagokionez (124,7 milioi euro 2014an), berean dirau 2008an hasitako beheranzko joerak. Urte hartan jo zen goia, 179,2 milioi gastatu baitziren eta 2012tik %17,3 jaitsi da.



EAEko herri-administrazioek egindako kultura-gastua, kultura-esparruka (%). 2010-2014.



EAEko herri-administrazioek egindako kultura-gastua, kultura-esparruko (euroak; ehunekoa). 2010-2014.





6. Kultura-enpleguaren bilakaera

Gora egin du kultura-enplegu publikoak +

Kultura-enplegu publikoa (lanpostu-kopurua urtera ekarrita). 2010-2014. +

Kultura-enpleguaren bilakaera. 2010-2014. +




Gora egin du kultura-enplegu publikoak

Kultura-enplegu publikoak igoera progresiboa izan du aztertutako urteetan zehar, bai zuzeneko enpleguaren kasuan, bai azpikontratutako enpleguaren kasuan. 2014an, kultura-enplegu publikoa % 9,5 hazi zen 2010arekiko, hots, 3.272 lanpostutik 3.582,7ra. Nabarmendu beharra dago lanpostuen % 79,1 zuzenekoak direla eta % 20,9 azpikontratatuak. EAĒko herri-administrazioetako enpleguaren erdia baino gehiago (% 54) emakumeek betetzen dituzte; 1.534 lanpostu, hain zuzen ere.


Zuzeneko enpleguaren ia erdia (% 48) erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan zein fundazioetan da, eta beste % 39, berriz, udaletan. Azpikontratutako enpleguari dagokionez, aipagarria da erakunde autonomoetan hartutako langile kopuruak izandako hazkundera.



Kultura-enplegu publikoa (lanpostu-kopurua urtera ekarrita). 2010-2014.



Kultura-enpleguaren bilakaera. 2010-2014.





Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan

EAE 2014

Emitzen laburpena



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura